

Bizkaiko Diputazioak ordaindukoei buruzko eztabaida «piztu» nahi du

Defizita diru beltzez estaltzerik ez dute nahi Larreak eta Ansolak

Diru beltza erakarriko luketen foru ordaindukoak berriro jaulkitzea proposatu zuen Praderak defizita finantzatzeko. Jokabide honekin baztertuta zeuden ordaindukoei buruzko eztabaida «piztu» nahi izan dutela adierazi zuten atzo Bizkaiko Diputazioetik. Larrea EAeko Haziendako burua eta Ansola Arabako diputatua ideia honen aurka agertu dira.

M.A. / BILBO

Bizkaiko Diputazioko bozeramailea den Aitor Estebanek atzo adierazi zuenez, foru ordaindukoen gaia «diputazioek planteiatu beharrekoa da, beren interes eta konpetentzien defentsan ari baitira». Estabanek azpimarratu zuenez, «ez dugu esan ordaindukorik aterako dugunik, eztabaida zabaldu dugu eta akordio bidea proposatzen dugu gai honetan; ikusiko dugu zer ateratzen den Kupoaren Batzorde Mistotik».

Eli Galdos Gipuzkoako diputatu nagusia Jose Alberto Pradera bere kide bizkaitarraren proposamenaren alde agertu da. Ez da berdin gertatu Arabako diputatua den Alberto Ansolarekin ezta Jose Luis Larrea Eusko Jaurlaritzako Hazienda sailburuarekin ere. Azken biak finantza tresna berri baten alde agertu dira, berau «garden» izan beharko litzatekeela azpimarratuz, hau da, bertan sartutako diruak Hazienda aitorpena egingo luke.

Bizkaiko Foru Aldundiaren esanetan, «erakundeok daukagun zorraren finantzaketa garestia kontutan harturik, itxita utzi zen gaiari berriro heltzea bazarrik nahi izan dugu, diputazioon



Bizkaiko Haziendak pagareak jaulkitzea aztertzen dihardu. XOUSE SIMAL

eskubide eta konpetentziak erabiliz».

Estabanek azaldu zuenez, «Diputazioak gai honi berriro heltzeko eskubide osoa dauka, iruzurraren aurkako borrokaren emaitzek ematen dioten legitimitate».

«DIRU BELTZA APROBETXATU»

Praderak defenditzen duen idearen arabera, herrialde garatu guztietan dago diru beltza eta hor dagoenez «aprobetxatu beharra» dago. Euskal Autonomi Elkarte-ko hazienden defizitak finantzatzeko foru ordaindukoak jaulkitzearen alde agertu da Bizkaiko diputatua. Ordaindukoak fiskalki opakoak dira, hau da, bertan sartzen den dirua ez dago Haziendan aitoritu beharrik.

Gaur egun indarrean dauden aktiboak altxor letarak dira eta % 14eko interesa ordaintzen dute haziendek. Foru ordaindukoek, berriz, % 5 ematen dute.

Potasas ixteko modua aztertzen ari dira Iruñeko Gobernu eta INI

IRUÑEA

Subizako Potasaseko zuzendariak Angel Luis Rodriguez San Vicente Nafarroako Industria sailburuarekin bildu ziren atzo, enpresa hau nola itxi aztertzeko. Potasaseko Konpainiako zuzendaritzak 1994eko abendurako aurrikusi du ixtea eta konpainiaren jabeak diren INIk (Enplegu Erakunde Nazionala) eta Nafarroako Gobernuak operazio hau «ez traumatikoa» izatea nahi dute.

Neurri traumatikorik ez hartzeak esan nahi du enpresako langilegoa osatzen duten 550 pertsonentzako beste lanpostu bat aurkitu beharra dagoela. Horretaz

Potasaseko zuzendariak adierazi zuenez, hartuko diren erabakiak «logikoak» izango dira.

Hala ere, enpresan ordezkaturik dauden sindikatuak ez daude ados erabaki horrekin eta horixe adierazi die zuzendariari eta Nafarroako Gobernuari Vicente Duque batzordeko presidenteari, eta urte askotarako mineralak daudela ziurtatu.

Lanpostu alternatiboak aurkitzeko proiektuak zehazteko ere eskatu zuen Duquek. «Ez zaigu serioa iruditzen enplegu alternatiboaz hitz egitea, ideia honekin ados egon gaitezkeen arren, aldi berean Nafarroako Gobernuak eta INIk sosik ere inbertitzeko asmorik ez badaukate».

Arabako 11 enpresak 1981etik 4.200 lanpostu galdu dituzte

GASTEIZ

Duela hamar urte 500 langile baino gehiago zeuzkaten Arabako enpresa guztiek lanpostuak galdu dituzte bitarte honetan, bertako Diputazioak eginiko ikerketa batek erakutsi duenez. Bostehun langiletik gorako 11 enpresa zeuden 1981. urtean eta gaur egun zortzi bakarrik. Guztira 4.200 lanpostu galdu dituzte, hau da, zeukaten enpleguaren laurden bat baino gehiago.

Ikerketa horren arabera eta, pentsa litekeenaren kontra, industri sektorearen garrantzia handiagoa da Araban (Barne Produktu Gordinaren % 45) Euskal Autonomi Elkarte osoan baino (BPGren % 38). Industria hau beira, kautxo, pneumatikoak, edariak, siderurgia, osagarriak eta ibilgailuen sektoreetan kontzentratzen da herrialde arabarrean.

Enpresa handien egoera banaka aztertuz, egoera larrienean dagoen enpresa Aenor da. Tubo ekoizleen sektorean, Tubacex larrialdian den bitartean, Tubos Reunidos irabazi arinak dauka. Beira sektoreko Villosa eta Vidrala egoera onean daude.

Michelin enpresari dago-kionez, azken bi urteetan diru galerak pairatu ditu, produktioaren kalitatea handia den arren. Mercedesek azken urteotan dirua irabazi du eta Gasteizko lantegian inbertsio handiak aurrikusten ditu.

Enpresa handien egoera ezberdina den bitartean, enpresa txiki eta tamaina ertainekoen kasuan denak bizi dira estuasunean. Arabako 20 enpresak 3-R planaren laguntzak eskatuta dauzkate eta 4.074 lanpostu galtzea aurrikusten dute.

ESKERRIK ASKO

«Araxes» Papelerako langileen Asanblada, eta bereziki, gose greban dauden 5 langile, gure esker beroenak eskeini nahi dizuegu Tolosaldeko biztanle guztieri, eta bereziki ondoan azaltzen diren pertxona, elkarte eta kolektiboak.

- Tolosaldeko, Txarama-Leaburu-Gaztelu, Oresa, Lizartza, Altzo, Ibarra, Alegi eta Tolosako zinegotzi eta alkateei.
- Tolosaldeko 63ko Enpresa Komiteko delegatuei.
- S. Esteban eta Amaroizko Auzo Elkarteei.
- Tolosaldeko azaiz eta praileei
- Ibarako Juani etxeoandreei.
- Otaño Megafoni alkilerria.
- Tolosako Tabernariak eta Kafetegiak.

MARTIN MANCHO, Nekazaritzaren Ikerketarako Programaburua E. J.; LASKORAIN IKASTOLAKO ZUZENDARIA; ESCUELAS PIAS; TOLOSAKO C.I.T.; ORIXEKO MAIXU ETA PERTSONALA, 9 Firma; M. BEGIRISTAIN, Futbolaria; INTXAUSTI, Korrikalaria; IGARONDO, Komertzioaren Elkarte; IGARONDO, Komertzioaren Elkarte; SANTI ERASO, Artelekuko Zuzendaria; S. ESTEBAN, Pilotako Elkarte; ARSENAL, Elkarte; OARGI, Elkarte; URDIÑA-TXIKI, Elkarte; S.D. IZASKUN, Elkarte; TXINPARTA, Elkarte; LIZARDI, Elkarte; GURE KAIOLA, Elkarte; AURRERA, Elkarte; JAI-JAI, Taberneroen Elkarte; KABI-ALAI, Elkarte; ERO-ETXE, Elkarte; S. TOLOSANO, Elkarte; BATA-SUNA, Elkarte; BENEFIZENTZI, Elkarte; BERA-ZUBI, Elkarte; TOLOSA CLUB DE FUTBOL; TOMAS UGARTEMENDIA, Eskultorea; IMANOL URANGA, CORPUS CRISTI Parrokia; SANTA MARIKO PARROKIA; FRANTZISKOTARRAK; P. GOROSABEL IKASTETXEA; TOLOSAKO LANBIDE HEZIKETA; PEIO GARIN, Korrikalaria; XABIER OLANO, HBren Junteroa; JUAN MARI GARIN, Korrikalaria; JULEN GOIKOETXEA, Eako Diputatu Ohia; MARTXEL AIZPURUA, Erlezaleen Elkarte Zuzendaria; XEPLA, Elkarte; BIZI-NAI, Jubilatuen Elkarte; S.D. IBARRA, Elkarte; IBARRAKO SENDI EKINTZA; AXIER GASTESI, Futbolaria; ZIGOR ARANALDE, Futbolaria; AMARROZKO AUZO, Elkarte; TOLOSA FUTBOL TALDEA; NEKANE IZAGIRRE; M. ETXEBERRIA; J. URDANPILETA; GURUTZE GAZPIE; ESTEBAN OLIVAR; JOAQUIN URIO, Lehen Dibisioko Arbitroa; MIKEL OLANO, Pilotaria; IÑAKI MURUA, Txirrindularia; AMAIA SARASOLA, Sendagilea; PATXI SARASOLA, Geologian Lizentziatua (E.H.U.); R. GANZARAIN, Ibarako Sendagilea; TXARAMAKO ELKARTEA; LEABURUKO ELKARTEA; GAZTELUKO ELKARTEA; J.J. OTE-

GI, Leaburu-Gaztelu - Txaramako Alkate; J.M. ALBIZU, Txarama eta Amaroizko Apaiza; J.I. IMAZ, Uzturte Ikastolako Zuzendaria; S. BARTOLOMEKO, Irakaslea; S. BLAS, Elkarte; ITUN-TXULO, Elkarte; KASIANO; ITZIAR BALERDI, Irakaslea; ARANTXA EGIZURAIN, Irakaslea; IÑAKI ALTUNA, Futbolaria; J.M. ESNAOLA, Musikoa; AMPARO IRAZUSTABARRENA; M. ARANZAZU SUQUIA, Sendagilea; GASPAS BARRIOLA, Beasaingo Futbolaria; ELISA AGIRRE, A.T.S.; LIZARTZAKO IKASTOLA; LIZARTZAKO JUAN XXIII, Eskolako Guraso Elkarte; LIZARTZAKO TXIRRITA, Elkarte; LULUAGA, Futbolaria; OSCAR SAINZ, Eibarko Futbolaria; GARMENDIA, Eibarko Futbolaria; J.M. ORMAZABAL, Ibarako Apaiza; AXUN AYERBE, Galtzaundiko Partaidea; M. URRUTIBEAZKOA, Txirrindulari Ohia; LIZARDI, Elkarte; TOLOSANO DYA; IVAN MATEOS, Igerilari; BERAZTEGIKO ALKATEA; BERROBIKO ALKATEA; XA-KEKO ELKARTEA; BANCO GUPIZCOANO, Bankuko Zuzendaria; BANCO BILBAO VIZKAI, Bankuko Zuzendaria; BANCO DE VASCONIA, Bankuko Zuzendaria; BANCO DE SANTANDER, Bankuko Zuzendaria; KUTXA, Bankuko Zuzendaria; BANCO ATLANTICO, Bankuko Zuzendaria; BANCO DE VITORIA, Bankuko Zuzendaria; BANKOA, Bankuko Zuzendaria; BANCO HISPANO AMERICANO, Bankuko zuzendaria; BANCO CENTRAL, Bankuko Zuzendaria; ANGEL MARI PEÑAGARIKANO, Bertso-laria; XABIER ARREGI, Remontista; JUAN J. GARMENDIA, Anoeta eta Irurako Apaiza; KONTXI LULUAGA, Ikastolako Zuzendaria; JUAN CARLOS OTERO, Palista Profesionala; LURRALDEA, Koordinakundea; ARCO IRIS, Elkarte; JOSEAN ORMAZABAL, Idazlea. ETA TELEFONAZ JASOTAKO 57 (SENDAGILE, ABOKATUAK, IDAZLEAK, e.a.) ELKARTASUN MESUAK